



## Ekin dio bere bideari Cristina Enea Fundazioaren udazkeneko agendak, 50 jarduera eta proiektuekin

*Igandean, irailaren 22an, urtaro berri bati ekin genion, udazkenari, eta urteko azken hiru hileak bertan murgilduta igaroko ditugu. Programazioa jada kontsultatu daiteke Cristina Enea Fundazioaren webgunean eta jarduera gehienetarako izen-emateak irekita daude.*

**Donostia 2024ko irailaren 24a.-** Uda amaituta, urtaro berriari ekin diogu ipar hemisferioan, eta udazkenean murgilduta zeharkatuko ditugu urteko azken hileak. Horrekin batera, Cristina Enea Fundazioak gaur eman du ezagutzera 2024ko Udazkeneko Jardueren Agenda, ia 50 ekintza eta proiektuz osaturiko programazio betea.

Ohi den legez, egitarauak erakusketak, hitzaldiak, ikastaroak eta irteerak bezalako jarduerak biltzen ditu, guztiekin herritarrak ingurumenera eta iraunkortasunera modu atsegin, didaktiko eta arduratsuan gerturatzeko helburuarekin.

Jarduera gehien-gehientsuenetarako izen emateak irekita daude dagoeneko, baina Mandasko dukesaren bisita teatralizatuen sarrerak hilabete bakoitzeko lehen astelehenean jariko dira salgai (urriko bisitetarako urriaren 7an, azarokoetarako azaroaren 4an eta abendukoetarako hilaren 2an).

Erakusketen atalean, María Cuetoren **Hazi hegalariak** arrakastatsuen ondoren (Cristina Enea Fundazioaren historian erakusketa bisitatuena bilakatu da) udazkenean Vanessa Barragão artista portugaldarraren **Submerso - Inmerso** erakusketak hartuko ditu Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxeko gelak, forma organiko eta fantastikoekin, ozeanoen sakoneko izakiak gogorarazten dituena, mundu naturalaren interpretazio abstraktua hautatuz. Inaugurazio ekitaldi publikoa ostegunean, irailaren 26an, izango da, arratsaldeko 17:00etan.

Irteeren atalean, bestalde, Eguzki Borda baserrira bisita programatu da, ON EKIN kanpainaren baitan, udazkeneko bitxikeriak ezagutzeko irteera gidatua egingo da Cristina Eneako parkean zehar eta urtero Aleka etxalde agroekologikora egin ohi den irteera ere egingo da, abenduan, beste jardueren artean.

Horrez gain, Ulia Interpretazio Zentroak onddoei buruzko erakusketa jasoko du eta baso bainu saioa ere izango da Ulian.

Kontsultatu egitarau osoa atxikitutako dokumentuan.



## Arranca la agenda de otoño de Fundación Cristina Enea con cerca de medio centenar de proyectos y actividades

*El pasado domingo, 22 de septiembre, nos sumergimos en una nueva estación, el otoño, a través de la cual surcaremos los últimos tres meses del año. La programación completa se puede consultar en la web de Fundación Cristina Enea y las inscripciones para la mayoría de las actividades ya se encuentran abiertas.*

**Donostia / San Sebastián, 24 de septiembre de 2024.-** Finalizado el verano, hemos dado inicio a una nueva estación en el hemisferio norte y surcaremos los últimos meses del año inmersos en el otoño. Junto a ello, Fundación Cristina Enea ha dado a conocer hoy la Agenda de Actividades de Otoño 2024, una programación repleta de casi 50 actividades y proyectos.

Como es habitual, el programa incluye actividades como exposiciones, conferencias, cursos y salidas, con el objetivo de acercar a la ciudadanía al medio ambiente y a la sostenibilidad de una manera amena, didáctica y responsable.

Las inscripciones para la inmensa mayoría de las actividades ya están abiertas, pero las entradas para las visitas teatralizadas de la duquesa de Mandas saldrán a la venta el primer lunes de cada mes (para las visitas de octubre, el 7 de octubre, para las de noviembre, el 4 de noviembre y para las de diciembre, el día 2 de ese mes).

En el apartado de exposiciones, tras el éxito de **Semillas voladoras**, de María Cueto, que se ha convertido en la muestra más visitada en la historia de Fundación Cristina Enea, en otoño el palacio de los duques de Mandas acogerá la exposición **Submerso - Inmerso**, de la artista portuguesa Vanessa Barragão, la cual, y a través de formas orgánicas y fantásticas que evocan las criaturas profundas de los océanos, realiza una interpretación abstracta del mundo natural.

En el apartado de salidas, por otra parte, se ha programado una visita al caseío Eguzki Borda, dentro de la campaña ON EKIN, una salida guiada por el parque de Cristina Enea para conocer las curiosidades del otoño y una salida a la granja agroecológica Aleka, en diciembre, entre otras actividades.

Además, el Centro de Interpretación de Ulía acogerá una exposición sobre hongos y también habrá una sesión de baño de bosque en Ulía.

Consulta el programa completo en el documento adjunto.